



Arartekoak 2021. urtean egindako gomendio eta iradokizunen bilduma eta laburpena diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren arloan

2022ko otsaila

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo



AURKIBIDEA

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzea legeko arrazoirik gabe	6
1.1. Arartekoaren 2021R-1488-20 Ebazpena, 2021eko ekainaren 1koa. <i>Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatu dio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa aitortzeko eskaera baten ukapena, horrek dakartzan ondorio ekonomikoekin</i>	6
1.2. Arartekoaren 2021R-1794-19 Ebazpena, 2021eko otsailaren 16koa. <i>Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio berrikus dezala bere kargura bi seme-alaba adingabeko dituen emakume baten diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea ukatzen duen ebazpena. Eskubidea ukatzeko arrazoia izan zen emakumeari egokitu dakioken eskubide edo prestazio ekonomikoa erabili ez izana.....</i>	7
2. Diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea legeko arrazoirik gabe	8
2.1. Arartekoaren 2022R-2469-2019 Ebazpena, 2022ko otsailaren 2koa. <i>Horren bidez, gomendatzen dio Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea 9 hilabetez eteteko ebazpena, uste baitu ez dela urratu prestazioen titular gisa inolako betebeharririk. Gainera, beharrezkotzat jotzen du gizarteratze aktiborako hitzarmenak egiteko eta ebazteko prozedura hobetzea eta ijitoen egoera espezifikoa kontuan hartzea, diskriminazioaren aurka borrokatzeko eta gizarteratzeko adostutako estrategiak eta planak kontuan hartuta.....</i>	8
2.2. Arartekoaren 2021R-1796-20 Ebazpena, 2021eko uztailaren 13koa. <i>Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatu zaio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren etete bat, uste baita prestazioen titularrak bete duela ustez bete ez zuen betebeharrak bat eta eska daitekeen ardurarekin jokatu duela</i>	9
2.3. Arartekoaren 2021R-2368-19 Ebazpena, 2021eko irailaren 2koa. <i>Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio berrikus dezala langile autonomo baten diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokion prestazioa eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eteteko ebazpen bat, langile horri bere jardueraren fikziozko errendimendua egotzi baitzaio, krisi-egoeran dela egiaztatu arren, berrikuspen horrek ekar litzakeen ondore ekonomikoekin</i>	10

3. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzea legezko arrazoirik gabe	11
3.1. Arartekoaren 2021R-2361-19 Ebazpena, 2021eko abenduaren 20koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio zuzenbidearekin bat ez etortzeagatik prestazioak iraungitzeko ebazpena berrikusteko eta bestelako zerbitzu publikoekin eta barneko kontrolekin koordinatzeko neurri egokiak ezartzeko, modu horretan, osasun mentalearekin lotutako arazoak dituzten pertsonak babesteko eta ziurtatzeko diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubide berdinak dituztela, are gehiago oztopo horiek beraien kargura adingabeak dituzten guraso bakarreko familiei eragiten dietenean	11
3.2. Arartekoren 2021S-819-20 Ebazpena, 2021eko azaroaren 15koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari iradokitzen zaio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea iraungitzeko ebazpena, ulertzen baita ez dela urratu aski baliabide ez izateko betekizuna, egiaztatu baita herentzian jasotako ondasunak gauzatzea zaila izango dela, biziarteko usufuktuz kargatuta daudelako	12
3.3. Arartekoaren 2021R-2088-20 Ebazpena, 2021eko urriaren 13koa. Horren bitartez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio baten azkentzea berrikus dezala. Izan ere, ezin da aldi baterako mugatu, barne-tresna hutsen bidez, indarreko araudian ezarritako adingabeak ardurapean dituen bizikidetz-unitate bat berezitzat jotzea, eta azpimarratu egiten du interpretazio horrek kultura gutxitu batzuegan eta egoera ahulean dauden familiengan dituen ondorioei buruz hausnartzeko beharra ..	12
3.4. Arartekoaren 2021R-170-20 Ebazpena, 2021eko urriaren 5koa. Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatu zaio berrikus dezala pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea iraungitzeko erabakia, lan-eskaintza bati ezetz esan izana bermatzen duten gutxieneko formazko bermeen faltagatik.....	13
4. Prestazioen erreklamazioa	14
Arartekoaren 2021R-1415-20 Ebazpena, 2021eko azaroaren 17koa. Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren kontzeptu gisa jasotako zenbateko bat itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpena, eta erabaki dezala ordaindutako zenbatekoak itzultzea, erreklamatzeko prozedura erreklamazio-ekintzaren preskripzio-eparearen ondoren hasi delako.....	14

5. Desadostasunak araudia interpretatzean: bizitoki kolektiboko esparrua.. 15

Arartekoaren 2021R-322-19 Ebazpena, 2021eko martxoaren 26koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio ahal bezain laster egin dezala gizarte-bazterketaren arloan diharduten gizarte-zerbitzu pribatuetako zerbitzu eta zentroak baimentzeko eta homologatzeko betekizun materialak, funtzionalak eta langileenak jasotzeko araudia 16

Arartekoaren 2021R-1000-18 Ebazpena, 2021eko martxoaren 26koa, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen diona bizitoki kolektiboko marko fisikotzat jotzea erakunde sozial batek kudeatutako etxebizitza behar bezala erregistratua, gizarte alorreko esku-hartze programa batean integratutakoa, bertan bizi diren bizikidetza unitate guztiek izan dezaten aukera diru sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko. Halaber, gomendatzen da aldatzea egun araudian dagoen muga, bizikidetza esparru berean gehienez ere diru sarrerak bermatzeko errentaren bi bizikidetza unitate onuradun egotearena..... 16

**ARARTEKOAK 2021. URTEAN EGINDAKO GOMENDIO ETA
IRADOKIZUNEN BILDUMA ETA LABURPENA DIRU-SARRERAK
BERMATZEKO ERRENTAREN ETA ETXEBIZITZARAKO
PRESTAZIO OSAGARRIAREN ARLOAN**

Aurreko urteetan bezalaxe, 2021ean dokumentu bat egin da, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari 2021eko diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kudeaketari lotuta bidalitako gomendioak eta iradokizunak jasotzen dituen –Arartekoaren webgunean argitaratuak–.

Horietatik guztietatik (12) 6 ez dira onartu, 2 erantzuteke daude, **3 onartu egin dira eta 1 kontuan hartuko da hurrengo araudi-aldaketan**, Arartekoari jakinarazi zaionaren arabera.

Bestalde, **33 kexa-espeditente amaitu dira prozedura sinplifikatuaren bidez**. Prozedura hori erabiltzen da litis-a Arartekoaren ebazpenen xede izan duten kexa-espeditenteetan eta erakunde bietako langileen artean eztabaidatuak izan direnetan, Lanbidek Arartekoaren oharrak eta iritziak onartu ez arren. Espediente horiek aurten bukatu dira eta, horietan, desadostasunak azaldu dira gai hauen inguruan: mailegu bat diru-sarrera ez-ohikotzat jotzea; jatorri-herrialdeko ondasun-ziurtagiri bat aurkeztu behar izatea; DSBE/EPOaren onuradun izateari utzi zioten pertsonen zor bat betearazpen-bidera bidaltzea; zorraren zatikatzea ukatzea; jakinarazi gabe EAetik ateratzea; DSBE/EPO azkentzea polizia-txostenaren arabera bizileku eraginkorrik ez egiaztatzearen; ezkontidea ez elkartzeagatiko azkentzea eta DSBEaren titularraren aldeko kredituaren zenbateko osoarekin atzerapenak konpentsatzea.

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzea legezko arrazoirik gabe

1.1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzea eskatzailearen ohiko bizitokia den higiezin bat jabetzaren erregistroan ez inskribatu izanagatik.

Kexagilea 1996tik bizi izan da Bilboko ohiko bizitokian, etenik gabe, eta han erroldatuta egon da; hasieran, amarekin, 2018ko abenduan hil zen arte.

Testamentuan haren bizitoki zen etxebizitzaren eta diru apur baten jaraunsle unibertsal izendatu zuten. Halaber, ama zenari kexagilearen amonak dohaintza puru eta soilean eman zion etxea, eta hura agertzen zen oraindik etxebizitzaren jabe gisa jabetzaren erregistroan.

2020ko martxoan, ama hil zenetik urtebete eta hiru hilabete igarotakoan, interesdunak Lanbiden diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko eskaera egin zuen, pertsona bakarreko bizikidetzaren unitate gisa, diru-sarrerarik ez zuelako eta oinarrizko beharrak asetzeko zailtasun handiak zituelako.

Entzunaldi-izapidean, honako hauek aurkeztu zituen: amak bere alde egindako testamentuaren kopia bat, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren likidazio-eredua, errolda-agiri bat eta jabetzaren erregistroko egiaztagiri bat, oraindik higiezinaren titular gisa amonaren izena zuena, eta argudiatu zuen ezin ziola aurre egin oinordetzan jasotako higiezina jabetzaren erregistroan bere izenean jartzeak zekarren gastuari, eta ez zuela beharrezkotzat jotzen, jaraunsle unibertsala eta jabe bakarra zelako, aurkeztutako dokumentuetan ageri zenez.

Hala eta guztiz ere, Lanbidek ukatu egin zion diru-sarrerak bermatzeko errenta, iritzi baitzion ez zuela betetzen bizikidetzaren unitate bat eratzeko betekizuna, eta ez zuelako etxebizitzaren araubidea argitu (alokairua, erabilera-lagapena).

Arartekoaren iritziz, ez dago zalantzarik: interesdunak pertsona bakarreko bizikidetzaren unitate bat osatzen zuen, eta ondo egiaztatu zen etxebizitzaren jabea zela.

Horrez gain, jabetzaren erregistroak segurtasun juridikoa ematen die inskribatutako eskubideei, erraztu egiten du trafiko juridikoaren segurtasuna eta azkartasuna, eta trantsakzio-kostuak murrizten ditu, baina bertan inskribatzea ez da funtsezkoa ondasun higiezin baten jabetza eskuratzeko.

Hori dela eta, Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari gomendatu zion berrius zezan 2020ko martxoan diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzeko ebazpena, eta berriuspen horrek ekarritako ondorio ekonomikoak aplikatzeko.

[Arartekoaren 2021R-1488-20 Ebazpena, 2021eko ekainaren 1ekoa](#). Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatu dio berrius dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa aitortzeko eskaera baten ukapena, horrek dakartzan ondorio ekonomikoekin. **ONARTU DA.**

1.2. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio ekonomikoa eta etxebizitzarako prestazio osagarriarena ukatzea eduki ekonomikoko eskubide bat baliatu ez duela uste izateagatik.

Lanbidek erabaki zuen kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea, iritzi ziolako kexagileak ez zuela baliatu bi seme-alaba adingabeen mantenu-pentsiorako eskubidea. Gai horri dagokionez, interesdunak frogatu zuen hirutan eskatu zuela adingabeen mantenu-pentsioa. Nolanahi ere, aipatutako organismoak argudiatu zuen kexagileak ez zuela salaketarik jarri hori betetzen ez zuen gurasoaren jatorrizko herrialdean.

Horri dagokionez, Arartekoak adierazi zuen Prozedura Zibilaren Legearen (PZL) 769. artikuluko hirugarren apartatuan xedatutakoaren arabera gurasoak barruti judizial ezberdinetan bizi direnean seme-alaba adingabeen mantenu-pentsioarekin lotutako gaiak ebazteko epaitegi eskuduna da salaketa jartzean adingabeak dauden tokikoa edo salatzailearen etxebizitza dagoen lekukoa, guraso salatzailearen esku. Hemen esku artean dugun gaiari dagokionez, interesdunak salaketa jarri zuen unean adingabeak bizi ziren lekuko lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegia hautatu zuen. Horrez gain, instituzio horrek gaineratu zuen kexagileak zioela ez zekiela seme-alaben aita non zegoen, eta, zentzu horretan, zuzenbidearen arabera jokatu zuela hor ere, lehenik eta behin eskatu baitzuen iker zedin salatuaren bizitokia non zegoen, eta, gero, ikerketak porrot egin zuenez, salaketa exekutiboa ediktu bidez jakinaraz zedin. Azkenik Arartekoak berriz gogorarazi zuen adingabearen interes gorena aintzat hartu behar dela haurrei eragiten dieten erabakiak hartzerakoan.

[Arartekoaren 2021R-1794-19 Ebazpena, 2021eko otsailaren 16koa](#). Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio berrius dezala bere kargura bi seme-alaba adingabeko dituen emakume baten diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea ukatzen duen ebazpena. Eskubidea ukatzeko arrazoia izan zen emakumeari egokitu dakioken eskubide edo prestazio ekonomikoa erabili ez izana. **ONARTU DA.**

2. Diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea legezko arrazoirik gabe

2.1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta osagarriaren prestazioa etetea, 9 hilabetez, langabezia dagoen bizikidetzaren unitate bati, zeina gutxiengo etniko batekoa den eta mendekotasun moderatua duen adingabe bat duen, prestazioaren titular gisa sinatutako gizarteratze-hitzarmenaren arabera nahitaez egin beharreko azterketak ez gainditzeagatik.

Arartekoaren iritziz, ikasturte batean ikasgai jakin batzuk gainditzeko konpromisoa ez dator dokumentu programa horien izaerarekin bat; izan ere, haien helburua da gizarteratzeko prozesu edo ibilbide pertsonalizatu bat diseinatzea. Gainera, ez dator bat horri aplikagarri zaion araudiarekin ere. Gizarteratze aktiboko hitzarmenen edukia arauz garatzeke dago, eta kontuan hartu behar ditu pertsona eta kolektibo hartzaileen ezaugarri eta behar espezifikoak. Lanbidek, gainera, etetearen iraupena arauzko nahiko oinarri gabe erabaki zuen, eta prestakuntza-ikastaroaren iraupenarekin parekatzea ezin da aplikatu. Gainera, azterketen deialdira ez zen azaldu familiako kontziliazio-arazoak tarteko. Beraz, segurtasun juridikoko printzipioa urratu zen, beharrezko ziurtasun juridikoari ezikusiena egin ziotelako. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteak ez dauka nahiko babes juridiko eta neurrigabea da, bi deialdira ez aurkezteak diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea 9 hilabetez etetea ekarri baitu, kontuan hartu gabe mendekotasun moderatuko pertsona bat bere kargu zuela.

Arartekoaren ustez, kausa horrengatik eskubide bat eteteko segurtasun juridiko handia beharko litzateke sinatutako gizarteratze aktiboko hitzarmena bete ez dela ondorioztatzen den prozesuan. Hori dela eta, Lanbidek, hitzarmena eteteagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta eten aurretik, araudi egokia eta jarraibide egokiak garatu beharko lituzke gizarteratze aktiboko hitzarmenak egiteko, baita aurreko diagnostikoak ere, eta eskuragarri egon beharko litzateke, aurreikusita dagoen moduan, barruan hartutako ekintzen edukia mugatzeko esparru juridiko bat. Beharrezkoa izango litzateke ere gizarteratze-hitzarmenak osatzen dituzten konpromisoen eta ekintzen betetze-maila ebaluatzeko prozedura bat aurreikustea, aurreko entzunaldia bermatzeko.

Kexa-espeditentean azaldutako jarduketan analisiak azaleratzen du beharra dagoela legean aurreikusitako gizarteratze-hitzarmena egiteko eta ebatzeko prozeduran hobekuntza argiak egiteko, ahaztu gabe aintzat hartu behar direla pertsona batzuek izan ditzaketan behar espezifikoak, adibidez, espeditente honetan bezala, kolektibo bati eragiten dietelako, ijitoenari, kasu honetan, zeinarentzat neurri bereziak ezarri behar diren, gizarteratzea lortzeko eta jasaten duten bazterkeriaren aurka borrokatzeko.

[Arartekoaren 2022R-2469-2019 Ebazpena, 2022ko otsailaren 2koa](#)¹. Horren bidez, gomendatzen dio Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea 9 hilabetez eteteko ebazpena, uste baitu ez dela urratu prestazioen titular gisa inolako betebeharririk. Gainera, beharrezkotzat jotzen du gizarteratze aktiborako hitzarmenak egiteko eta ebazteko prozedura hobetzea eta ijitoen egoera espezifikoak kontuan hartzea, diskriminazioaren aurka borrokatzeko eta gizarteratzeko adostutako estrategiak eta planak kontuan hartuta. **ERANTZUNAREN ZAIN DAGO.**

2.2. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria etetea dokumentu jakin batzuk ez aurkezteagatik, etxeko gelen banaketari eta etxea partekatzen duten bizikidetzak-unitateei buruzkoak.

Kexagileak pertsona bakarreko bizikidetzak-unitatea osatzen du, eta logela bat dauka azpierrean. Adierazi du dokumentazio hori epe barruan aurkeztu zuela, baina ezin da egiaztatuz, Lanbidek une hartan emandako egiaztagirian ez delako jaso zehazki zein dokumentu aurkeztu ziren. Halaber, kexagileak, hautazko berraztertze-errekurtsoarekin batera, errolda-agiri bat aurkeztu zuen, etxeko kide guztiena, baita han erroldatuta ageri diren arren ezagutzen omen ez dituen pertsonen zerrenda bat ere.

Arartekoak errepikatu duenez, nahiz eta etxebizitza bateko erroldan bertako logelak baino pertsona gehiago erroldatuta egotea anomaliaren baten zantzua izan daitekeen, ez du nahiko bermerik eskaintzen erroldan etxebizitzak dituen logela baino jende gehiago inskribatuta daudela egiaztatzeagatik eskaera bat etetea, ukatzea edo bertan behera uztea, inolako ikerketarik edo egiaztapenik egin gabe. Beraz, Arartekoak ez du interesdunaren zabarkeriarik hauteman eta, horrenbestez, iritzi dio ez dagoela kausarik prestazioaren ordainketa eta haren zenbaketa 18/2008 Legearen, abenduaren abenduaren 23koaren, 28.1.e) artikuluko ondoretarako hilabetez etetea erabakitzeke.

[Arartekoaren 2021R-1796-20 Ebazpena, 2021eko uztailaren 13koa](#). Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatu zaio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren etete bat, uste baita prestazioen titularrak bete duela ustez bete ez zuen betebeharririk bat eta eska daitekeen ardurarekin jokatu duela. **EZ DA ONARTU.**

¹ Ebazpenaren jakinarazpena eta argitalpena 2022. urtearen hasierara atzeratu da.

2.3. Diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea krisi-egoeran dagoen langile autonomo baten jardueraren alegiazko etekin bat egozteagatik.

Kexagilea saltzaile ibiltaria zen 2017tik, eta aldi berean diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuen, lanaren osagarri gisa, baita etxebizitzarako prestazio osagarria ere.

Eskubide horien titular izateko betekizunak eta obligazioak betetzen direla egiaztatzeko prozedura batean, langile autonomo gisa duen jardueraren etekina zehazteko, 2019ko apirilean Lanbidek entzunaldi-izapidea ireki zela jakinarazi zion, eta eskatu zion azken hiru hilabeteetako diru-sarrerak aitortzeko.

Bere konturako jardueratik lortutako etekina oso txikia zenez eta, beraz, PFEZaren urteko aitorpena aurkezteko betebeharrak ez zenez, interesdunak Lanbideri zinpeko aitorpen bat aurkeztu zion, azken hiru hilabeteetako diru-sarrerena. Bertan, jardueraren etekina hileko 70 eurokoa zela adierazi zuen.

Lanbidek erabaki zuen prestazioa etetea, oinarri gisa hartuta bere konturako jarduera hasi eta hemezortzigarren hilabetetik aurrera, aurretik aitorpen fiskalik gabe, jarduerari egotzi beharreko gutxieneko etekina lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150 dela, diru-sarrerak bermatzeko errentaren araudiaren arabera.

147/20100 Dekretuaren, maiatzaren 25ekoaren, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoaren, 16.3 b) artikulua argitan, jarduera ekonomiko bat hasi ezker hemezortzi hilabete igarotze hutsak ezin du ekarri automatikoki lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150eko alegiazko etekina egoztea, eskaeraren aurreko sei hilabeteetan krisi-egoera frogatu denean. Kasu horietan, legearen aginduz, Lanbidek onartu egin behar du prestazioen titularrak egindako hileko diru-sarreraren zinpeko aitorpena eta, gainera, ezin du eskatu, hala badagokio, oker jasotako zenbatekoak itzultzeko.

Hori dela eta, Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari gomendatu zion berriki zezan kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpena, eta berriki horrek ekarritako ondorio ekonomikoak aplikatzeko.

[Arartekoaren 2021R-2368-19 Ebazpena, 2021eko irailaren 2koa](#). Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio berriki dezala langile autonomo baten diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokion prestazioa eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eteteko ebazpen bat, langile horri bere jardueraren fikziozko errendimendua egotzi baitzaio, krisi-egoeran dela egiaztatu arren, berriki horrek ekar litzakeen ondore ekonomikoekin.
ERANTZUNAREN ZAIN DAGO.

3. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzea legezko arrazoirik gabe

3.1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea bi bider dokumentazioa epe barruan ez aurkezteagatik, bat berritze-prozesuan, buruko osasun-arazoak dituen familia-buruari eraginda.

Lanbidek ebatzi zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea hiru adingabe bere kargu dituen guraso bakarreko bizikidetzak unitate bati, zeina pisu batean bizi den, merkatu libreko alokairuan. Bi prestazioetarako eskubide subjektiboa aitortu zitzaientetik, Lanbiden egiaztatu zuen, zegozkion txosten medikoen bitartez, tratamendu medikoa eta farmakologikoa jasotzen ari zela patologia psikiatrikoengatik (antsietatea, depresioa) eta neurologikoengatik (epilepsia), Osakidetzako zerbitzu espezializatuetan.

Iraungitzearen arrazoia izan zen bi aldiz eteteko kausak betetzea. Lehen etetea enplegu-eskaera eguneratzean 24 ordu atzeratzea izan zen (LEABD). Bigarrena, prestazioak bi urtean behin berritzeko prozesuan dokumentazioa epe barruan ez aurkeztea. Hala ere, bigarren espediente horretan, zuzenena izango zen erabakitzea prestazioak ez berritzea. Iraungitzearen ondorioz, familiaren oinarrizko beharrak asetzeko zailtasunak areagotu egin ziren, gizarte-bazterketako eta zaugarritasuneko jatorrizko egoera larritu egin zitzaien, eta haien bizitoki zen etxeko kaleratze-gaztigua jaso zuten. Horrek guztiak eragina izan zuen kexagilearen buruko osasunean.

Arartekoaren iritziz, kexagilearen jardunbideak espediente honetako kasuan ekarritako ondorioa neurrigabea izan zen, eta ez du arauzko babesik. Batetik, diru-sarrerak bermatzeko errenta berritzeko prozeduran dokumentazioa ez aurkezteak hura berritzea ukatzea ekarri beharko luke, ez hura etetea, eta are gutxiago iraungitzea, araudi aplikagarriari jarraituz. Gainera, Arartekoak gomendatzen du koordinazio-neurri egokiak ezartzea beste zerbitzu publiko batzuekin eta barne-kontrolak ere bai, buruko osasuneko arazoak dituztenak babesteko, diru-sarrerak bermatzeko errentaz berdintasunez goza dezaten, are gehiago oztopo horiek adingabeak beren kargu dituzten guraso bakarreko familiei eragiten badiete.

[Arartekoaren 2021R-2361-19 Ebazpena, 2021eko abenduaren 20koa](#). Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio zuzenbidearekin bat ez etortzeagatik prestazioak iraungitzeko ebazpena berrikusteko eta bestelako zerbitzu publikoekin eta barneko kontrolekin koordinatzeko neurri egokiak ezartzeko, modu horretan, osasun mentalekin lotutako arazoak dituzten pertsonak babesteko eta ziurtatzeko diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubide berdinak dituztela, are gehiago oztopo horiek beraien kargura adingabeak dituzten guraso bakarreko familiei eragiten dietenean. **EZ DA ONARTU.**

3.2. Diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzea ondare-baliabideak gainditzeagatik, nekez diru bihur daitezkeen ondasunak bidegabe zenbatzeagatik.

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi zion langabezia zegoen eta desgaitasuna duen pertsona bati, aitaren herentzian lau higiezin jabetza soila eskuratu zuelako, zeinen gainean haren amak biziarteko usufruktua zuen eta, beraz, nekez bihur zitezkeen diru. Haren egoera ez zen aldatu herentzia jaso aurretik zuenarekin alderatuta, eta, beraz, oraindik ere betetzen zituen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko betekizunak eta betebeharrak.

Erakunde honen iritziz, etorkizunean indarrean dagoen araudia aldatzeko eta nekez diru bihur daitezkeen ondasunak zenbatzeko beste modu bat aurreikusteko asmoak ez dio Lanbideri galarazten bitartean indarreko araudia interpretatzea, Arartekoak behin eta berriz proposatu duen moduan. Arartekoaren aburuz, usufruktupeko ondasun horiek zenbatzean ulertu da gainditu egiten dela 18/2009 Legearen 16. artikuluan eta 147/2010 Dekretuaren 9. artikuluan definitutako ondare-muga, eta, beraz, ez luke prestaziorako eskubiderik izango, ondare-muga gainditu duelako. Nolanahi ere, ondasun bat herentziagatik eskuratzeak, biziarteko usufruktupean badago, ez du gaitasun ekonomikoa inola ere aldatzen, eta ez da ondasun eta baliabide ekonomikoak legez aurreikusitako mugara arte izan ditzaketenen neurri berarekin neurtzen.

[Arartekoren 2021S-819-20 Ebazpena, 2021eko azaroaren 15ekoa](#). Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari iradokitzen zaio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea iraungitzeko ebazpena, ulertzen baita ez dela urratu aski baliabide ez izateko betekizuna, egiaztatu baita herentzian jasotako ondasunak gauzatzea zaila izango dela, biziarteko usufruktuz kargatuta daudelako. **EZ DA ONARTU.**

3.3. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzea adingabeak bere kargu dituen bizikidetzaren unitate berezitat jotzea mugatzen duen barne-jarraibide bat aplikatzeagatik.

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi zion kexagileari, iritzi ziolako hark, emazteak eta semeak ez zutela familiako bizikidetzaren unitateaz besteko bizikidetzaren unitate bat osatzen. Organismo autonomoak argudiatu zuen bizikidetzaren unitateak izan duela bizikidetzaren unitate independente bat izan dela lehen ere, adingabeak bere kargu zituelako, eta adierazi du 147/2010 Dekretuan aurreikusitako 24 hilabeteak adingabea jaio zenetik hasi behar direla zenbatzen.

Arartekoaren analisiaren arabera, 18/2008 Legeak ez du interpretazio hori babesten; izan ere, bizikidetz-unitateak definitu bakarrik egiten ditu, eta ez du aurreikuspen horretarako denbora-mugarik ezartzen. Hain zuzen, arauzko garapenak denbora-muga ezarri zion bizikidetz-unitate berezi izaerari. Arartekoak, 2017ko txosten diagnostikoan, hain justu, mahaigaineratu zuen beharra zegoela epe hori luzatzeko aukera ezartzeari buruz hausnartzeko, ezohiko kasu jakin batzuetan bazen ere. Aurreko arauzko garapenak berak –198/1999 Dekretua, apirilaren 20koa, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera arautzen duena, 4. artikulua, 2. eta 3. apartatuak– ez zuen denbora-mugarik ezarri ezohiko egoera horietarako, adingabeak adin-nagusitasunera heltzekoa izan ezik, hau da, 18 urte betetzea. Gai formal horiei dagokienez, ebazpenean zehaztutako epai judizialekin bat, herritarren defendatzaile honek iritzi dio autoantolakuntzarako eta barne-informaziorako barne-dokumentu batek ezin duela tresna gisa balio izan diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea edo iraungitzea dakarren araudiari edukia emateko, hori babesteko arauzko beste inolako sostengurik gabe.

Arartekoak, azkenik, nabarmendu du beharra dagoela hausnartzeko egungo interpretazioak gutxiengo kultural batzuentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden familia batzuentzat, merkatu libreko etxebizitzetara heltzeko zailtasun handiagoak dituztenentzat, dakartzan ondorioen inguruan.

[Arartekoaren 2021R-2088-20 Ebazpena, 2021eko urriaren 13koa](#). Horren bitartez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio baten azkentzea berrikus dezala. Izan ere, ezin da aldi baterako mugatu, barne-tresna hutsen bidez, indarreko araudian ezarritako adingabeak ardurapean dituen bizikidetz-unitate bat berezitzat jotzea, eta azpimarratu egiten du interpretazio horrek kultura gutxitu batzuegan eta egoera ahulean dauden familiengan dituen ondorioei buruz hausnartzeko beharra. **EZ DA ONARTU.**

3.4. Diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzea enplegu bat betetzeko hautaketa-prozesuan parte hartzera ustez uko egiteagatik.

Interesdunak, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak, Lanbiderekin elkarlanean aritzen den enpresa baten telefono-dei bat jaso zuen, lan-elkarrizketa bat egiteko. Kexagileak esan du adierazi zuela ez zeukala arazorik elkarrizketara joateko, eta zein helbidetara joan behar zuen galdetu zuela, baina deia egin zuenak esan ziola ez zela beharrezkoa.

Hala eta guztiz ere, Lanbidek erabaki zuen eskubidea iraungitzea, honetan oinarrituta: *“BUren edozein kidek lan-baldintzen hobekuntza bati uko egiten dionean inolako justifikaziorik gabe.”*

Arartekoaren iritziak, lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesu batean parte hartzeko proposamena bera erabakigarria da prozedurarako, zeharka, eta hori egiteko moduak babesgabetasuna sor dezake interesdunarentzat (Espainiako

Konstituzioaren 24. artikulua jasotako aurreikuspenaren arabera antolamendu juridikoak galarazten duena). Babesgabetasun hori larritu egin daiteke prestazio horien titularra zein kolektibokoa den, gehienak gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak baitira, zaugarriak eta askotan Euskadiko hizkuntza koofizialak menperatzen ez dituztenak.

Lanbidek zein organismo horren entitate laguntzaile batek telefonoz egindako lan-eskaintza bat ustez ukatzea da, azken finean, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubide subjektiboa iraungitzeko ebazpenen oinarria, eta, hortaz, komunikazio hori egiteko modua funtsezko elementua da administrazio-espeditante honetan. Hori dela eta, formazko gutxieneko berme batzuk eman behar dira, interesdunak babesgabe gera ez daitezten. Espeditante honetan, erakunde honen ustez, ez da berme hori eman.

[Arartekoaren 2021R-170-20 Ebazpena, 2021eko urriaren 5koa](#). Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatu zaio berrius dezala pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea iraungitzeko erabakia, lan-eskaintza bati ezetz esan izana bermatzen duten gutxieneko formazko bermeen faltagatik. **EZ DA ONARTU.**

4. Prestazioen erreklamazioa

Prestazioen erreklamazioak 4 urteko preskripzio epea igaro ondoren

Lanbidek erabaki zuen prestazioak erreklamatzeko, eta jarduteko eskatu zuen araudiak aurreikusitako epea igaro ondoren (147/2010 Dekretuaren 58. artikulua), hau da, lau urte. Hain zuzen, dirua itzultzeko obligazioa sortu zen kexagileak 2012an bizikidetzaren unitatearen aldaketa jakinarazi ondoren. Aldaketaren data ez da ezagutzen, ordea. Nolanahi ere, data hori ezagutzen ez denez, *dies a quo* gisa jo behar da iraungitzeko ebazpenarena, hau da, 2012ko abenduaren 28koa. Dirua itzultzeko obligazioa 2017ko azaroan ebatzi zen; beraz, preskripzio epea gainditu egin zen, kontuan hartuta erreklamazio-prozedura gehienez ere 6 hilabete lehenago gertatu zela. Lanbidek argudiatu du aurretiazko komunikazio bat bidaltzean preskripzio-epea eten egin zela, 2014ko irailaren 17an. Arartekoa ez dator bat baieztapen horrekin, irizten baitio **komunikazio hori ez dela baliozkoa preskripzio-epea eteteko**, [Arartekoaren 2015eko ekainaren 8ko Ebazpenean](#) aztertu zenez.

[Arartekoaren 2021R-1415-20 Ebazpena, 2021eko azaroaren 17koa](#). Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio berrius dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren kontzeptu gisa jasotako zenbateko bat itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpena, eta erabaki dezala ordaindutako zenbatekoak itzultzea, erreklamatzeko prozedura erreklamazio-ekintzaren preskripzio-epearen ondoren hasi delako. **ONARTU DA.**

5. Desadostasunak araudia interpretatzean

Bizitoki kolektiboko esparrua

Arartekoak gizarteratze-programetarako etxebizitzak (batzuetan Alokabidek lagatakoak) dituzten elkarten hainbat kexa izapidetu ditu. Lanbidek araudi orokorrean aurreikusitako mugak ezarri ditu, eta, beraz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularitatea soilik baimentzen du etxebizitza bakoitzeko bi bizikidetza-unitaterentzat. Haren iritziz, eskaerak ez du betetzen 147/2010 Dekretuaren 6.2. artikuluan ezarritako ezein baldintza. Haren erantzunean, Arartekoak erantzun zuen ez zutela Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuetako Foru Erregistroaren baimenik gizarteratzeko baliabide pribatu izateko. Horrenbestez, ukitutako elkarteek baimena eskatu zioten Arabako Foru Aldundiari. Eskaera egitean jakinarazi zitzaizen ezinezkoa zela baimen horiek lortzea, ez zegoelako araudirik gizarte-zerbitzuetako zerbitzu eta zentroei horiek baimentzeko eta homologatzeko eskatu beharreko betekizun materialak, funtzional eta langileenak arautzeko. Araudi hori egitea Eusko Jaurlaritzari dagokio, eta, zehazki, egungo Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako Sailari. Arartekoak, horrenbestez, sail horretara jo zuen, araudia egitea aurreikusita ote zegoen jakiteko. Sailak Arartekoari erantzun zion ez zela aurreikusi araudia egiterik, baina ulertzen zuela aldundiek beren lurralde-esparruan erabil zitzaizketela Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5ko 12/2008 Legeak foru-aldundiei emandako ahalmenak. Dena den, Arabako Foru Aldundiak Arartekoari erantzun zion ez zuela eskumenik eta sektoreko araudirik arriskuko edo bazterketa sozialeko egoeran daudenezako harrera-zentro pribatuak baimentzeko. Ondorioz, Arartekoak gomendio bat egin zion Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari, ahal bezain laster egin dezan araudia gizarte-bazterketaren alorrean lan egiten duten gizarte-zerbitzuetako zerbitzu eta zentro pribatuei horiek baimentzeko eta homologatzeko eskatu beharreko betekizun material, funtzional eta langileenak arautzeko. Ez da onartu gomendia. Halaber, gomendio bat egin zion Lan eta Enplegu Sailari; izan ere, Arartekoaren iritziz, araudia egin ez izanak ez zuen galarazi behar bizitoki kolektiboko esparrutzat jotzea.

Ebazpen horretan azaldu zen zein arrazoirengatik ulertzen zuen erakunde honek bizitoki kolektiboko esparrutzat jotzea zegokiola. Orobat, Arartekoak eskatu zuen egun bizikidetza-esparru berean gehienez ere diru-sarrerak bermatzeko errentaren bi bizikidetza-unitate onuradun egotearen inguruan araudian dagoen muga, iritzi diolako osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi honetan, babes publikoko etxebizitza nahiko ez dagoenez, abian jarri behar direla ahal bezainbeste neurri sozial ostatu egokia bermatzeko, ezinbesteko betekizuna baita bizitza duina izateko. Azkenik, gaineratu zen Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legearen aldaketa iragarri horretan kontuan hartu beharko litzatekeela proposamen hau.

[Arartekoaren 2021R-322-19 Ebazpena, 2021eko martxoaren 26koa](#). Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio ahal bezain laster egin dezala gizarte-bazterketaren arloan diharduten gizarte-zerbitzu pribatuetako zerbitzu eta zentroak baimentzeko eta homologatzeko betekizun materialak, funtzionalak eta langileenak jasotzeko araudia. **EZ DA ONARTU.**

[Arartekoaren 2021R-1000-18 Ebazpena, 2021eko martxoaren 26koa](#), Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen diona bizitoki kolektiboko marko fisikotzat jotzea erakunde sozial batek kudeatutako etxebizitza behar bezala erregistratua, gizarte alorreko esku-hartze programa batean integratutakoa, bertan bizi diren bizikidetza unitate guztiek izan dezaten aukera diru sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko. Halaber, gomendatzen da aldatzea egun araudian dagoen muga, bizikidetza esparru berean gehienez ere diru sarrerak bermatzeko errentaren bi bizikidetza unitate onuradun egotearena.

Lan eta Enplegu Sailak Arartekoari erantzun dio entitate sozialei eskatzen jarraituko diela froga dezaten kontratu, hitzarmen edo itun bat dutela bizitoki kolektiboko esparru fisikotzat jotzeko, hargatik eragotzi gabe lege berrian gai hori ezberdin tratatu ahal izatea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsaila

ararteko

Herriaren Defendatzailea

Defensoría del Pueblo